




ELKARRIZKETA

Napoleon LERTXUNDI
 USURBILGO SAIZAR SAGARDETEGIA

Saizar sagardotegian ere egoera berrira moldatu behar izan dute. Elkarte eta jatetxeetako kontsumoak inoiz ez bezalako jaitsiera jasan ondoren, txotx denboraldia zabaltzeko aukera izan dute, baina usurbildarrentzat bakarrik. Egoera horretan, Napoleon Lertxundik argi dauka etxeetako kontsumoari heldu beharko diotela aurrera egin ahal izateko.

«Argi dago etxeetako kontsumoari heldu behar diogula»



“

«Kupel arteko sozializaziorik izango ez denez, mahai inguruan jokotxo bat egitea proposatzen diegu bezeroei, sagardo desberdinak dastatu eta puntuazioa emateko».

ikusten dugu. Iaz konfinamendu garaian sagardoaren salmentari eutsi genion eta aurten ere gure estrategia bide horretatik doa, elikaduraren sektoreari eta etxeko kontsumoari eutsiz.

Etxeetako kontsumoak indartsu jarraitzen du, beraz, baina ostalaritza eta elkarteetako guztiz erori da ezta?

Elkarteetako kontsumoak guztiz erori da, denbora luzean baitaude itxita. Ostalaritzaren kasuan ere jaitsiera latza nabarmendu da salmentetan, izan ere, etengabeko neurri aldaketek taberna eta jatetxeetako salmentak jaitea eragin dute eta itxiaz duden kasuetan salmentak nuluak izan dira, jakina. Beraz, argi dago etxeetako kontsumoari heldu behar diogula.

Txotx denboraldi berria atzeratu egin da aurten, baina zuek dagoeneko zabalik duzue sagardotegia. Nola antolatzen ari zarete bazkariak (kupelera joan gabe...) eta zer erantzun ematen ari da jendea?

Bai, guk urte osoan zabalik izaten dugu eta jada eman diogu 2021eko sagardotegi denboraldiari hasiera. Aurtengoa ez da ohiko denboraldiak bezalako izango, txotxik ez baita izango, baina egoerara egokitu gara gure bezeroek sagardo berria dasta dezaten. Horretarako pitxerrak ezarri ditugu eta jendeari kupel desberdinetako sagardoa mahairaino eramaten diogu. Gainera, kupel arteko sozializaziorik izango ez denez, mahai inguruan jokotxo bat egitea proposatzen diegu bezeroei, sagardo desberdinak dastatu eta puntuazioa emateko. Beraz, jendea gustura ikusten ari gara.

Aurtengo urtea ere korapilatsua izango dela dirudi (taldea handiak elkartzeko debekua, gorrian dauden herrietatik ateratzeko debekua...). Nola prestatu zarete egoera berri honetarako?

Egoerara egokitzea besterik ez zaigu geratzen eta, horretarako, ditugun baliabideak egokitu, berrantolatu eta, noski, berrikuntzak egitea. Momentu honetan herrien itxiera dela eta usurbildarrek soilik goza dezakete gure sagardotegiaz, lau pertsonako taldetan eta soilik bazkarietarako. Beraz, argi dago jaitsiera latza nabaritu dugula. Gu prest gaude sagardotegi denboraldiarekin jarraitzeko; beraz, atek irekita izango ditugu sagardo berria dastatu eta otordu goxo bat egin nahi duenarentzat.

Botila izango da, beraz, protagonista aurtengo sagardotegien denboraldian. Zein da une honetan zuen sagardo eskaintza?

Sagardotegi denboraldi honetan pitxerrak izango ditugu gure bezeroek sagardo berria dastatzeko nahi dugulako. Txotx egitea ezinezkoa denez guk eramango diegu mahaira kupel desberdinetako sagardoa. Beraz, neurriek baimentzen duten heinean, Saizar sagardotegiaz gozatzen animatzen zaituztegu!

J.S. | USURBIL


Pasa den urteko konfinamenduak bete-betean harrapatu zuen sagardotegietako txotx denboraldia. Zer estrategia jarraitu duzue salmentak ez galtzeko? Urtean zehar lortu duzue nolabait galdutakoa berreskuratzea?

Iaz bete-betean harrapatu gintuen eta aurten ere ez dugu nahi bezala hasi urtea. Neurriak etengabe aldatzen eta estutzen doaz eta horrela aurtengo denboraldia normalitate oso urrun

Goieko
 INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
 SISTEMA ETA PRODUKTOAK

www.goieko.com

© 943 634 536



Usurbildarrek
 daukate
**sagardo
 alkate**

Usurbilgo Udala